



Soziolinguistika Klusterraren, Mariaren Lagundia ikastolaren eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena BERBEKIN (Bergaran Berbazko Komunikazioa indartzea) egitasmoari jarraipena emateari buruzkoa.

Bergaran, bi mila eta hogeiko abenduaren 23an.

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Udalburua, Udalaren ordezkari izan.

Imanol Larrea Mendizabal jauna, Soziolinguistika Klusterreko zuzendaria, elkarte horren izenean.

Gotzon Iparragirre San Sebastian jauna, Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria, ikastola horren izenean.

Hiru aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

1.- Soziolinguistika Klusterrak Bergaran haur eta gazteetan ahozko komunikazioa hobetzeko egitasmo pilotu bat abian jartzeko elkarlanerako proposamena aurkeztu ziola 2013an Bergarako Udalarik.

2.- Proposamen haren haritik herriko ikastetxeei egin zitzaien Berbekin (Bergaran Berbazko Komunikazioa indartzea) izeneko egitasmo pilotua bideratzeko proposamena, eta Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastolek azaldu zuten programa ikastetxean inplementatzeko prestutasuna. Horretaz aparte, Ipintza institutuak ere gaiaren gaineko formazioa jaso zuen, programa bera inplementatu gabe.

3.- Ikerlan aplikatu horren helburua da ikastetxean edozein ikasgaitan ahozko jardunaren presentzia eta kalitatea handitzea.

4.- Programa bideratzeko, hitzarmenak egin ziren 2014an, alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, programa diruz laguntzeko, eta, bestetik, aipatu hiru ikastetxeekin egitasmoan parte hartzeko.

5.- Hitzarmen horien indarraldia 2018. urtean amaitu zen eta bai Soziolinguistika Klusterrak eta bai Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastolek interesa azaldu zuten egitasmoari jarraipena emateko, eta Udalarik horretarako laguntza eskatu zioten.

Eskari horri jarraiki Soziolinguistika Klusterrak, Mariaren Lagundia ikastolak, Aranzadi ikastolak eta Bergarako udalak lankidetzan hitzarmena sinatu zuten 2019an programa diruz laguntzeko. Programari jarraipena eman zitzaion 2020ko partean ere baina



pandemia dela eta Aranzadi ikastolak adierazi zuen egoera berrian berak ezin zuela parte hartu.

Hori horrela izanik, Soziolinguistika Klusterrak, Mariaren Lagundia ikastolak eta Bergarako Udalak

ADOSTEN DUTE

LEHENENGOA. Soziolinguistika Klusterrak Berbeekin egitasmoaren ikerketa aplikatua garatzen jarraituko du 2020 eta 2021. urtean zehar 2020-2021 ikasturtearen amaierara arte, Mariaren Lagundia ikastolan, hitzarmen honen eranskinean jasotzen diren jarraibideen arabera.

BIGARRENA. Bergarako Udalak Soziolinguistika Klusterrak Mariaren Lagundia ikastolan programari eskaintzen dion jarduna diruz lagunduko du. Laguntzaren zenbatekoa kostuaren %67koa izango da, gehienez ere 5.000 euro. Gainontzeko %33a Mariaren Lagundiak jarriko du.

Dirulaguntza hori 2 zatitan ordainduko da, era honetan: hitzarmena sinatzean laguntzaren %60 eta programaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuriitze-agiriak aurkeztean gainontzeko %40a.

HIRUGARRENA: Horretaz gain, Soziolinguistika Klusterrak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Ekintzaren gaineko edozein zabalkunde-jardueratan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- c) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
- d) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, dirulaguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.
- e) Udalak egin litzakeen ikuskarpenak erraztuko ditu.
- f) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste dirulaguntzarik lortuz gero.

Beste dirulaguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

- g) Gutxienez bost urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

LAUGARRENA: Udalak emango duen dirulaguntzaz gain helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, dirulaguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inola ere gainditu diruz laguntzen den jardueraren kostua.

BOSGARRENA: Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat betetuko balitz edo, Udalaren laguntzaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua sinatzea.



SEIGARRENA: Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Dirulaguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Dirulaguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, dirulaguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.



Imanol Larrea Mendizabal
Soziolinguistika Klusterra
Elkarteko zuzendaria



Gorka Arriola Alberdi
Bergarako alkatea



Gotzon Iparragirre San Sebastian
Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria

ERANSKINA

BERBEKIN

BERGARAN BERBAZKO KOMUNIKAZIOA INDARTZEKO PROGRAMA

2020ko urtarritik 2021eko ekainera-Mariaren Lagundia ikastola.

Bergaran berbazko komunikazioa indartzeko programari ekin zitzaion "edozein irakasle da hizkuntza irakasle" oinarritzko pentsamendutik abiatuta. Eskoletan ahozko komunikazioa indartu dadin bideratu da ekintza-ikerketa hainbat arlotako irakasleekin elkarlanean, bereziki, LHko 3. eta DBHko 1. zikloko irakasleekin.

2017an ahozko hizkuntzaren erabilera indartzen laguntzen duten "praktika onen" bilduma bat osatu zen, eta aztertu zein neurritan hobetu zen ikas-arloen eta hizkuntzaren presentziaren arteko harremana. Ildo horretatik, 2019an, ahozko hizkuntzaren sustapenean laguntzen duten praktika onei erreparatu eta horiek ikastetxe mailan finkatzeko bideari ekin zitzaion. 2020ko urtarritik 2021eko ekainerako tartean ere, hasitako bideari eman nahi zaio jarraipena, urratsez urrats aurrera eginez.

Jarraian, hainbat zehaztasun:

• Ikastetxe mailan hedapena. Sistematizatzeko-bidean.

- Irakasle guztiek ahozko hizkuntzaren mesedetan esku-hartzeko gakoak ezagutzea bermatu nahi izan da.

• Irakasleek banan-banan diseinatutako esku-hartzeak gela barruan inplementatzea.

- Tresnen inplementazioaren feedbacka eman eta jasotzea, bai irakasle, bai teknikarien aldetik.

- Era honetan egituratuko dira aurtengo lanak:

- Talde motorrak: talde honek harreman zuzena izango du ikertzaileekin eta, irakasleekiko zubi-lana egitearekin batera, urteko jardueren eta bileren jarraipena egiteko ardura hartuko du. Talde motorraren eta ikertzaileen artean saio berezituak antolatuko dira eginkizunen azalpenetarako eta banaketetarako.

- Ikastetxeko azpi-taldeak: bi talde nagusi banatuko dira, batetik, Lehen Hezkuntzako taldea; bestetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako taldea. Irakasleek saioen diseinu lanetan parte hartuko dute. Talde-



motorraren laguntza ere izango dute azpi-taldeek; era horretan, SLK eta ikastetxearen arteko zubia indartuz.

- Horretarako, lan-dinamika ezberdinak eramango dira aurrera:
 - Urrezko Txantxangorriaren inplementazioa.
 - Unean uneko prestakuntza. Talde motorrarekin batera erabakiko da.
 - Gela barruko gelaratzeak eta horren gaineko balorazioa.
 - Covid-19ak sortutako egoerari erantzunez, lan-dinamiken egokitzapena.

